

## GERRA ETA BAKEA EUSKAL HERRIAN

Politikagintza lege zaharraren krisialdian

**Joseba Agirreazkuenaga,  
Gaiak argitaletxea, Donostia, 1993**

Herrialde orenen historiografian leku berezia izan du kronologiaren arazoak. Historiaren garai desberdinak erabakitzeko orduan, maiz, historialariak ez dira ados jartzen. Eztabaida horren lekuko dugu, Gaur Egungo Aroaren hasieraren inguruko iritziak. Izan ere, espainiar, edota frantziar, tradizioarentzat, epe hori 1789ko iraultzarekin hasten den bitartean, britainiar egileentzat lotura estua dago XVIII. eta XIX. mendeen artean. Euskaldunok, zorionez edo zoritxarrez, ez dugu zalantzarik gure historia hurbila non hasten den erabakitzeko orduan. Ezinezkoa baita ulertzea herri honetan egun gertatzen dena, Konbentzioko gerrarekin hasi eta XIX. mendean zehar garatutako bilakaera bortitza kontutan hartu gabe. Eta, hain zuzen, garai hori da Joseba Agirreazkuenagak aukeratu duena liburu hau burutzeko. Nahiz eta nagusiki Hego Euskal Herriari buruz aritu ez dira Iparraldearekiko aipamenak falta. Leioako irakasle hau, aro horretan espezialista izanik, irakurle arruntarentzat ulergarria den lana burutzen saiatu da, azken urteetan kaleratu diren erakarpen nagusiez baliatuz. Liburuaren azpi-izenburuak nabarmentzen duenez, bere gai nagusia politikaren bilakaera da, ikuspegi ekonomikoa argitaletxe berean kaleratu berri duen beste lan batean aztertzen duelarik.

Lana hamar ataletan banaturik dago. Hitzaurrean eta lehen atalean garbi asko azaltzen ditu bere oinarriak, zenbaitzuentzat polemikoak izango direlarik. Historia egiteko dauden ikuspegiak eta mugak argitu ondoren, liburuak bake-hezkuntzarako tresna izan nahiko lukeela azpimarratzen du. Lehen atala, Euskal arazo delakoaren ingurukoa da. Bertan zehazten da noiz sortu zen kategoria politiko, juridiko, geografiko eta kultural gisa Euskal Herria eta dikotomia faltsuak albo batera utziz, azken berrehun urteotan gertatutako liskarretako bi aldeetan, gutxi-asko guztietan euskaldunak ageri direla esaten zaigu.

Bigarren atalean, biztanlegoaren bilakaera demografikoa aztertu ondoren, hirugarrenean Frantziako Iraultzaren zikloan sartzen gara. Agirreazkuenagaren ustez, lehen gerra honek eta iraultzaren eraginak banakuntza sakona sortu zuten euskal gizartean. Hurrengo mendeko gatazketan erabiliko ziren argudioak bertan azaldu ziren, nahiz eta batzuetan, zirriborro moduan. Napoleonen garaiko gudek herri xehearen protagonismoa eta politika egiteko garaian armak erabiltzeko joera indartu zuten.

Bostgarren atalak Zientzia eta Kulturaren zabalkundea aztertzen du. Pentsakera zientifikoaren sorrera

azaldu ondoren, Azkoitiko zaldun-  
txoen eskutik, Mogelen inguruko  
mezuen garrantzia azpimarratzen du,  
euskal tradizio baten indartze-  
-prozesuan izan zuen garrantzia  
aztertuz. Azkenik, gizarte-zientzien  
garapena ikertzen du, eztabaida  
historiografikoen garapenean izan  
zuten eragina azalduz, foruen alde edo  
aurka. Europako zenbait egilek Euskal  
Herriaz esandakoak aipatzen ditu  
seigarren atalak. Zazpigarrenak, aldiz,  
hezkuntza-sare autonomoaren gara-  
pena aztertzen du. Bakarrik hartuz  
gero atal egokia eta ondo osotua den  
arren, ez dirudi zerikusi handiegirik  
duenik lanaren beste atalekin eta, ene  
aburuz, ez die liburuaren tesi nagusiei  
ezer gehitzen. Bestetik, eta hau egileak  
bere eguneroko ekintzetan hezkuntzari  
ematen dion garrantziaren ondorioa  
litzateke, porrot egin zuten egitasmo  
gehiegi dago gure historian,  
hezkuntzaren bilakaerari buruz hain  
ikuspegi optimista azaltzeko.

Zortzigarren ataletik aurrera ekintza  
politiko eta militarrek berriro hartzen  
dute lehen lekua amaieraraino.  
Fernando VI.a erregetzara itzuli  
ondoren sortutako tirabirak, Trienioko  
(1820-1823) liskarrak, lehen karlistada  
eta Euskal Herriko lurralde desberdi-  
nak ordezkatu zituzten legebiltzarki-  
deen hainbat ezaugarri argituz. Hamar-  
garrenak 1808 eta 1876 bitartean  
foruen inguruan burututako ezta-  
baidak, legeak, egitasmoak eta  
erakundeen birformulazioak eta  
moldaketak lantzen dira. Azken atal  
hau da, nere ustez, interesgarriena,  
bertan egiten delako garai osoaren  
errepaso orokorra, euskal erakundeek

gertakizun horien ondorioz bizi  
zituzten aldaketak azalduz. Lanean  
garbi gelditzen da XIX. mendearen  
erdialdera foralitate berria sortu zela,  
Espainiako agintarien eta bertako  
zenbait talderen presioen ondorioz.  
Garai horretako kultur guneak aipatu  
ondoren liburu bigarren karlistada-  
rekin amaitzen da.

Liburu hornitzen duten marrazki,  
mapa eta laukiak testua aberastu egiten  
dute eta berdin gertatzen da, azken  
orrialdeetan azaltzen den Europa,  
Espainia, Frantzia eta Euskal Herriko  
gertakizunen kronologia konpara-  
tuarekin. Hala ere, komenigarria  
izango zen, hainbat mapa eta lauki  
dagokion testutik hurbilako jartzea,  
bere azterketa errazteko. Era berean,  
zenbait ataletan erabilitako oharrak  
aipatzen diren orrian joatea  
eskertzekoa litzateke; baita liburuaren  
azkenean bibliografia orokorra  
aipatzea eta ez atal bakoitzaren  
amaieran; laugarrenean, adibidez, ez  
da azaltzen. Bestetik, eta hau erabat  
nere gustu pertsonala da, liburuak  
ondorio orokorra mereziko luke, atal  
bereziarekin. Kritika hauek, noski,  
bigarren mailakoak dira, eta ez dute  
liburuaren mamia inondik inora  
kolokan jartzen. Nahiz eta hainbat gai  
azaletik pasa, adibidez, bostgarren  
atalean aipatzen den kultura herritarra,  
hori ezinbestekoa da, espezializatu  
gabeko irakurleko zabalari zuden-  
dutako liburu batean. XIX. mendeko  
Euskal Herriko historiara hurbildu nahi  
duen edonork, bere helburua lortuko  
du Joseba Agirreazkuenagak euskara  
txukunean idatzi duen lan honekin.

*Mikel Aizpuru*